Ebazpena, 2017ko ekainaren 6koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, 2017/2018 ikasturterako TKNIKAn diharduten pertsona batzuen zerbitzu-eginkizunak luzatzen duen 2017ko ekainaren 1eko Ebazpena aldatzen duena.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko ekainaren 1eko Ebazpenak TKNIKAn diharduten pertsona batzuen zerbitzu-eginkizunak luzatzen ditu.

Aipatu ebazpenean zuzendu beharreko hutsak atzeman dira eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 109.2. artikuluan dioenari jarraiki, “Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”.

Horiek horrela, eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Bakarra.- 2017ko ekainaren 1eko Ebazpenaren I. Eranskina, pertsona hau gehitzea:

- LABAKA INTXAUSPE, JON MIRENA

ERREKURTSOAK

Administrazioko bidea amaitzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121.artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko ekainaren 6an.

Konrado Mugertza Urkidi
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA